



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Ostirala
2010-02-26**

VIII. URTEA 1938. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Lander Oterminenek urrezko domina lortu du Munduko Txapelketan

IBARRA Lander Otermin Abadiño A taldearekin ari da tiratzen eta Imanol Otermin Abadiño B-rekin

SOKATIRA Goma gaineko 560 kiloko Munduko Txapelketa Abadiño A taldeak irabazi zuen atzo Italian 6




ENERITZ MAIZ

JOSEBA OTAEGI AIZKOLARIA

«Aizkoran ez naiz gehiegi aritu, denetik egin dut pixka bat»

ZIZURKIL Azpeitiko zezen-plazan, etzi, Joseba Otaegiren eta Alex Txikonen arteko apustua jokatu da 12:00etatik aurrera 5



ITERRADILLOS

ITSASO DEL REY JOSTUNA

«Ikastaroan 15 lagun daude guztira, denak emakumeak»

ANOETA Apirila bitarte baserritar jantziak josten ikasiko dute Itsaso del Rey irakasle dutela 3

Babes ofizialeko etxebizitzetan izena emateko martxoaren 15a da azken eguna

LEITZA Landa Goikoan babestutako 40 etxebizitza egingo dituzte 7

Saneamendu obrek ur zikinak Amezketa arrora bideratuko dituzte

ABALTZISKETA Zuntz optikoa igarotzeko hodiak ere sartzen ari dira 4

Laburrak

Langostino elkarteek etzi ez dute irteerarik egingo

IBARRA Igande honetan Langostino motorzaleen elkarteek ez dute irteerarik egingo. Hasiera batean, itzuli bat eman behar zuten etzi, baina eguraldiaren aurreikuspenen arabera haizete gogorrek izango dira igandean, eta badaezpada ere, txangoa bertan behera uztea erabaki dute. Hala, barkamena eskatzen diete antolatzaileei motorzaleei.

Emakumearen egunaren harira, zenbait ekitaldi

BERASTEGI Martxoak 8, Emakumeen nazioarteko egunaren harira, bi ekitaldi antolatuta dituzte Berastegin. Alde batetik, afaria egingo dute martxoaren Sean, Basurde elkartearen. Izena emateko epea etzi amaitzen da. Hau, ondorengo telefono zenbakietara deituta egin daiteke: 943 68 31 51 (Kontxi) eta 943 68 33 38 (M^a Jesus). Bestetik, sendabellarrei buruzko hitzaldia izango da egun berean. Saioa eskolatzeko izango da, 17:00etan. Itziar Salegik emango du.

'Celda 211' filma ikusteko aukera asteburuan, Gurean

VILLABONA Asteburu honetan, Gurea aretoan bi film ezberdin ikusteko aukera izango da. Alde batetik, bihar eta etzi 17:00etan, haurrentzako saioa izango da, *Tiana y el sapo* lanarekin. Bestetik, bihar 19:30ean eta 22:30ean; etzi 19:30ean eta astelehenean, 21:30ean *Celda 211* lana ikusteko aukera izango da. Daniel Monzon zuzendariaren azken lan honek hainbat Goya irabazi ditu duela egun gutxi.

Santiagoko Foro Gastronómicoan izan da Roberto Ruiz sukaldaria

Tolosa Donejakue bidean zehar aurkitzen diren bost jatetxetako ordezkariak izan dira bertan azalpenak ematen.

ERREDAKZIOA

Tolosar sukaldari bat, Roberto Ruiz hain zuzen ere, ohorezko gonbidatu izan da Santiagoko (Galizia) Gastronomía Foroan. Joan den asteburuan ospatu zen ekitaldia, eta tolosarra hain izan zen, bere taldeko hainbat kideekin batera.

Foroan, *Santiagoko bidearen sukaldariak: bost sukaldari handiren eskutik, bidaia bat paisaia gastronomikoan zehar* izenburupean egin zen hizketaldi batean hartu zuen parte Ruizek. Berarekin batera izan ziren Koldo Rodero Iruñeko Rodero jatetxekoa; Ezkarai-ko Echaurrenreko Francis Paniego; Zamorako Rincon de Antonio jatetxeko Antonio Gonzalez eta Santiagoko Mercaditoko Gonzalo Rey.

Ekitaldirako, Javier Sañudo, Roberto Ruizen taldeko sukaldariak I diazabalgo gazta plantxan eta barazkiekin sukaldatu zuen. Bertaratu ziren 200 lagunei, Frontoneko sukaldaria arduratu zen hura zer zen azaltzeaz. Honekin, Gipuzkoako gastronomian horren garrantzitsua den produktua aurkeztu nahi izan zuten, baita inguru hauetako sukaldaritzaz zabaldu ere. Honez gain, foro hartan bertan, arkumea eta bere zati ezberdinak prestatu zituzten, gero jendakurean azaltzeko.



Roberto Ruizek bere taldeko kideekin batera, hemengo produktuak eraman ditu Santiagora, ezagutzera emateko. E. E.

Sukaldatze lanak amaitu ostean, jakien inguruko azalpenak eman zituzten sukaldariek. Bestalde, 120 standez osatuta zegoen azoka produktu ezberdinekin, eta sukaldaritzarako teknologia berrieekin osatuta. Horietako batean zegoen hain zuzen, Tolosako Nicolas erretegi Matias Gorrotxategi sukaldaria. Honek bere jatetxean

erabiltzen dituen euskarri ezberdinekin, haragia erretzean eskaintzen dituzten abantailak zituen erakusgai. Asteburuan zehar izandako hitzaldi eta jardunaldiez gain, dastaketa eta sukaldaritzaz tailerrak ere izan ziren Santiagoko Foroan. Tardean, gozogintzako erakustaldiak eta Slow Food-enak ere ikusi

ahal izan ziren. Baita, haurren elikaduraren inguruko saioak ere. Santiagoko foroa urtetik urtera gero eta izen handiagoa ari da hartzen eta aurtengo azokan, nazioartean izen handia duten sukaldariek ere hartu zuten parte. Besteak beste, Ferran Adria, Jacques Maximin, Pierre Gagnaire, Eric Roux eta Marcelo Tejedorrek.

tolosaldeko hitza.iragarki laburrak.com

Asteburu honetan Tolosaldeko Hitza iragarki laburrak.com webgunean ikusiko da.

ETXERANTZAK

SIBERTAN ENAK

Villabona. Villabonako Tasmintan auzoan berriz alkatzen da. Erabakia kapoaldia iragarria. Berrigoia sistema zentrala du eta 75 m². Aukeraz garajarekin alkatu daiteke. Hurrengo asteazkenean telefono zenbakia: 580-19 2772.

LAN EKARILAK

PERTSONAK ZAINDU

Villabona. Haurrak edo helduak zaindu eta etxeko lanak egiteko enakionea eskaintzen da. Hurrengo asteazkenean telefono zenbakia: 647-299625.

IRAKASKUNTZA

Villabona. Ingelesko hizkuntza irakasteko taldea eskaintzen du. Taldeko eskolabakaria. Maita ezberdinekin eskaintzen dituzte irakasteko hizkuntza irakasteko. Kontakutarako telefono zenbakia: 654-16 02 68. Posto elektronikoa: confornta56@hotmail.com.

GABERAKOAK

Tolosa. Goizertan lana egingo duen enakionea eskaintzen da. Esperientzia handia du otazleriaz, haur zainketa, nahiz garbitzean. Hurrengo asteazkenean telefono zenbakia: 675-00 68 56.

LAN EKARITZAK

OSTIRALDIAZ

Elizain. Egun ederrak zaindu eta behar duen Tolosaldeko jantzi eta taberna batetara. Euzko-

ar hitz irakasteko eta kotoia eskaintzen duen enakionea da. Deitu: 695-78 52 63 telefono zenbakia.

Tolosa. Tolosaldeko kanonera bat behar duzue otzila eta lan irakasteko. Interesatuak deitu: 650-04 31 39 telefono zenbakia.

ETXERANTZAK

Tolosa. Emakumeen kateak zaindu eta arakasteko garbitzeko enakionea eskaintzen da. Hurrengo asteazkenean telefono zenbakia: 943-65 02 72.

PERTSONAK ZAINDU

Tolosa. Emakumeen behar duen arakasteko 4 orduko zainduen emakume bat zainduko. Interesatu-

ak deitu: hotsako telefono zenbakia: 675-63-25-93.

KANPOKOAK GUREAN

LAN EKARITZAK

IRAKASKUNTZA

Lanorte-oria. Fotohop eskola partikularik ematen du. Argazki tratamendua eta ikur digitala lantzen ditu. Esperientziaduna da irakasteko eta irakasteko. Informazio gehiago: 607-58 40 95.

Ikolan lan aidi
ALDIBATEKO LANA
Bazterre, 7 (jantzi komertziala) - BEASAIN
943-16 20 48
Ikusi lan eskaintzak:
www.ikolanidi.com

zenbakia: 625-73 40 75.

GABERAKOAK

Lanorte-oria. Muzika profesionala irakasteko. Diferentzia eta beste teknika lantzen dituzte, gozatuaz berraztertu eta berraztertu. Buzkari, arakasteko, artikulari, arakasteko, artikulari, arakasteko... eskaintzen dituzte. Erreklamazioak: 607-58 40 95.

tolosaldeko hitza.iragarki laburrak.com
HURRENGO IRAGARKI LABURRAK ZUREN

Interneten
iragarki guztiak doan

Paperean
ostiralean atal honetan doan
satu eta erretan eman ez den iragarki guztiak
satu eta paperean irakurri ere iragarki sartzen da

iragarkien prezioak:
Aste bat 5€ / bi aste 9€
hiru aste 12€ / bost aste 17€

E Elkarrizketa

ITSASO DEL REY Jostuna

«Ikasleek baserriar jantzia josten ikasi dutela ikustea oso polita izaten da»

Gizartea » Apirila bitarte baserriar jantziak josten ikasiko dute Anoetan egiten ari diren tailerrean; Itsaso del Rey ariko da, bigarren urtez, irakasle moduan.

INIGO TERRADILLOS

Pasa den urtean Iruran eman zuten Itsaso del Rey-k (Arrasate, 1980) joskintza ikastaroa. Aurten, berriz, Anoetan ari da izena eman duten eskualdeko herritarrei josten erakusten. Iazko arrakasta ikusita, bigarrenez egitea erabaki dute, baina, aurtengoan, baserriar jantziak josten ikasiko dute.

Iruran izan zinen pasa den urtean josten erakusten. Zer moduzko esperientzia izan zen?

Oso gustura aritu nintzen, eta parte hartu zutenak ere bai. Guztira 10 lagun inguru aritu ziren. Ez oinarritzko joskintza ikastaroa eman genuen, eta harrera ona izan zuela kontuan izanda aurten ere antolaztea erabaki dute, baina, oinarritzko maila eman ordez, baserriar jantziak egiten ikasiko dugu.

Nolako jantziak egiten ikasiko dute parte hartzen dutenek?

Hasiere batean nesken baserriar jantziak josten erakusteko asmoa nuen, baina, uste dut denetarik egingo dugula. Izan ere, pasa den asteartean hasi ginen, eta parte hartzaileetako batzuk mutilen jantzia edota haurrentzako jantzia egitea gustatuko litzaiekeela aipatu zuten. Beraz, denetarik egiten erakutsiko dut. Batzuk, josten ikastearekin batera, jantzia familiarako kideren batentzat egiteko baliatuko dute ikastaroa.



I.TERRADILLOS

Aldez aurretik josten jakitea beharrezko al da?

Ez da nahitaezkoa. Ez dut oinarritzko mailarik ere eskatzen. Eta tailerrean denetarik dago, badira josten badakitenak, eta badira ideiarik ez dutenak. Norbere erritmoan joango dira. Horregatik, batzuk erraztasunez egingo dute ikastaro amaierarako baserriar jantzi osoa, eta beste batzuk, berriz, agian osoa amaitzera ez dira iritsiko. Baina gero euren kabuz bukatzeko gai izango dira, ziur.

Zein da joskintza tailerrean izena eman dutenen profila?

15 lagun dira denera, guztiak emakumeak. Joskintzaren mundua orain arte beti egon izan da emakumearekin gehiago lotua, horregatik zailagoa izaten da gizonezkoak horrelako ikastaroetan izena emateko.

Adinari dagokionez, denetarik dago, baina bi talde egin genitzake; bata 30 urte ingurukoena, eta beste, berriz, 40-50 urte artekoena. **Gogotsu ekin al diote ikastaroari?** Bai. Batzuk beldur pixka batekin sumatu ditut josten ez dakitenez ez dutelako euren burua gai ikusten. Baina hori lehenengo bi asteetan-edo izango da, ikusten joango baitira ikasten doazela eta euren kabuz josteko gai direla.

Norberak aukeratzeko al du josi nahi duen jantzia?

Bai. Materiala nik eramaten dut, baina, gero norberak egin nahi duen jantziaren arabera kolak eramaten ditu.

Jantzia amaituta ikustean poza sentituko dute tailerrekoek.

Bai, eta hori oso polita izaten da, izan ere, hasieran ez dute uste bu-

katu ahaliko dutenik, eta ikastaroaren amaieran jantzia amaitzean asko pozten dira.

Baserriar jantziekin bilakaera egon dela esan daiteke azken urteetan?

Ez nuke esango. Baserriar jantziak betikoak dira. Kontua da lehen oinarritzkoagoak-edo gehiago erabiltzen zirela, eta gaur egun gehiago ikusten dira koloretsuagoak eta politagoak direnak. Baina, horiek ere bertako ohiko jantziak dira, eta tailerrean denetarik egiten dugu.

Nolatan hasi zinen ikastaro haukin?

Moda eta diseinua ikasi nuen, eta ama jostuna denez, txikitatik izan dut zaletasuna. Arrasaten hasi nintzen joskintza tailerrean, eta gustura jarraitzen dut.

Udalak babesa adierazi die sahararrei SEADen urteurrenean

Tolosa » Saharar Errepublikako Demokratikoaren sorreraren urteurrenaren harira, bandera jarriko dute udaletxeko balkoian.

ERREDAKZIOA

Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoa (SEAD) aldarrikatua zuteneko 34. urteurrena beteko da bihar, eta hori dela eta, sahararrei elkartasuna adierazteko, Mendebaldeko Saharako bandera jarriko dute udaletxeko balkoian.

Dagoeneko hogeita hamar urte-tik gora dira sahararrak beren herri-tik bidali zituztela, eta geroztik, erre-fuxiatu kanpalekuan bizi dira Tinduf ondoko basamortuan. Erbestea ari dira pairatzen, gerra urteak, eta itxaropenaldiak, desiratzeko duten erreferendumaren atzeratze eta atzeratzeek zapuztuta. Udalak babesa adierazi nahi die, eta «Saharak bere herri nortasuna aske eta zuzentasunez landu dezan» espero du.

T Telefonoak Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosalde bus: 943 650621

Leitzaran autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udalizaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurramendi egoitza: 943 670325


Tolosa gasa: 943 675320

Alkoholiko anonimoak: 943 248474



15 emakume joskintza tailerrean

ANOETA » Tolosaldean Ikastri Bizitza Osoan Zeharreko Ikaskuntza zerbitzuaren eskaintzaren baitan dago joskintza ikastaroa. Pasa den asteartean hasi ziren tailerrekin, eta apirilaren 20ra arte iraungo du. Astearte eta ostegunetan biltzen dira Anoetan baserriko jantziak egiten ikasteko. Guztira eskualdeko 15 emakume ari dira parte hartzen tailer berezian honetan. Eskaera handia izan zuten, baina lekua dela eta askok parte hartu gabe geratu beharra izan zuten. Duen arrakasta kontuan izanik aurrera begira ere izango da josten ikasteko beste aukerarik. I.TERRADILLOS



Egunotan Abaltzisketa eta Amezketako arteko errepidean egiten ari dira saneamendu lanak. I. GARCIA

Ur zikinak Amezketako ibaiaren arrora bideratuko dituzte saneamendu obrek

Abaltzisketa » Foru Aldundiak erabaki berri duenez, zuntz optikoa bideratu ahal izateko hodiak ere jarriko dituzte.

ERREDAKZIOA

Abaltzisketako saneamendu lanak pixkanaka burutzen ari dira. Obra horien bitartez, herriko ur zikinak bideratu ahal izateko hodiak ere jarriko dituzte.

dearen azpitik bideratzen ari dira kolektorea eta horrek trafikoan ondorioak eragin ditu.

Gipuzkoako Foru Aldunditik azaldu dutenez, proiektuan aurreikusita dago Abaltzisketako herriko kolektoreak hondakin urak bilduko dituen kolektore bat egitea, gero ur hori Amezketako kolektorearekin lotzen den punturaino eramateko. Behin Amezketako kolektorea egiten denean, Oria ibaiko kolektorearekin bat egingo du, Adunako araztegiara ur zikin guztiak bideratzeko.

Lehen Abaltzisketako ur zikinak Ibiur errekararen bideratzen baziren, proiektu horren ondorioz, uren isurketa beste arrora bideratuko da, hau da, Amezketako ibaiaren arrora. Lanak ekainean bukatuta egongo dira.

Bestalde, Foru Aldundiak jakinarazi duenez, saneamendu proiektuan aldaketa onartu berri du. Erabaki horri esker, hasita dauden saneamendu lanak bukatzeaz gain, beste bi hodi jarriko dira beren kuxatila eta guzti, etorkizuneko udalerrian zuntz optikoa pasatu

ahal izateko. Esleipendunak, Construcciones Echaide enpresak, saneamenduko lanak aprobetxatuko ditu paraleloan zuntz optikoen azpiegitura gehitzeko. Era berean, ura husteko ahalmen handiagoa izango duen pontoi berri bat egingo da Egoarre erreka zeharkatzeko.

Lan horiek 2004-2009 urtealdian azpiegitura hidraulikoetan inbertsioak egiteko Gipuzkoako Ur Kontsultazioarekin izenpetutako lankidetzaren hitzarmenaren barruan sartzen dira.

Barrikotearekin hasiko dira bihar Artubi elkarteko aurtengo ekitaldiak

Bedaio » Elkarteko lan talde berria hasi da lanean eta barrikotean jende ugari biltzea espero dute.

ERREDAKZIOA

Dagoeneko hasi da Bedaio Artubi elkarteko lan talde berria lanean eta egin dute 2010. urterako ekintzen egutegia. Asteburu honetan izango da gainera lehenengo ekitaldia, hau da, barrikotea. Bihar 21:00etan bilduko dira elkartean sagardotegietan eskaini ohi den menua dastatzeko asmoz eta aurtengo sagardo berria edateko go-goarekin. Urtero jendeak gogoz hartzen duen biltzerra da eta jende ugari inguratzen da. Aurtur ez dute antolatzaileek gutxiago espero. Azkenaldian jendeak oso ondo erantzun duela eta «dena oso ondo prestatuta» dutela esan dute antolatzaileek.

Horrez gain, antolatzaileek gogorazi nahi dute «beti bezala Artubi elkartean antolatzen diren ekitaldi guztiak irekiak direla etorri nahi duten guztientzat» eta bide batez gonbitea luzatu nahi dute: «bihar etor daitezela giro atseginean afaldu nahi duten guztiak». Bide batez, azken urteetan lanak ugartu direnez, laguntza ere ondo hartuko dutela azaldu dute, «orain arte jasotako baino gutxiago ez dadila izan» azaltzeko.

Afaria eta elkarretaratzea antolatu dituzte Emakumearen egunaren harira

Alegia » Afaria martxoaren 6an izango da Kultur Etxean eta elkarretaratzea martxoaren 8an egingo dute.

ERREDAKZIOA

Emakumearen egunaren harira afaria eta elkarretaratzea antolatu dituzte Alegian. Afaria martxoaren 6an izango da, Kultur Etxean, 21:00etan. Afaria eta gero dantzaldia egongo da leku berean. Antolatzaileek afarira zerbait morea eramateko eskaria egin dute. Txartelak 25 euro balio dute eta Kultur eta Kirol Etxean salduko dira martxoaren 4a arte.

Elkarretaratzea, berriz, Emakumearen Nazioarteko Egunean bertan izango da, martxoaren 8an. 19:00etan izango da eta herriko plazan elkartuko dira.

Aurrera-Saiazekoak nagusi Aretan

ERREDAKZIOA

Aretako (Laudio, Araba) Txapelketan jokatuak bi finaleran nagusi dira Aurrera-Saiazeko pilotariak. Etorkizuneko mailan lauak ziren elkarteko pilotariak eta Apeztegiaren Albiak 22-15 irabazi zioten Nabarte-Zubiriri. Nagusien mailan, Aurrera-Saiazeko Telletxeak Ollorekin 22-13 irabazi zioten Yoldi-Landiribar bikoteari.

Asteburu honetan hainbat final jokatu dituzte. Donezteben (Nafarroa), bihar, 16:00etan: Iturriaga-Labaka eta Zelaia-Elustondo (lauak Aurrera-Saiazekoak); Renobales-Landiribar (Aurrera-Saiaz) eta Irigoien-Iparragirre. Ortuellan (Bizkaia), etzi, 11:00etan:

Epelde-Telletea (Aurrera-Saiaz) eta Larrañaga-Diez. Mungian (Bizkaia), etzi, 11:00etan: Santxo-Jaka eta Urbietako-Zinkunegi (Aurrera-Saiaz). Bestalde, etzi Beotibarren, 10:30ean, Aurrera-Saiazekoek Bergararen aurka izango dute partida Berria Txapelketan.

Euskal Herriko Ligari dagokionez, asteburu honetan sei partida dituzte Aurrera-Saiazeko pilotariak. Horietatik bi etxean jokatu dituzte gaur, Beotibar pilotalekuan, 21:00etan. Beste lau partidetatik gaur bi partida jokatu dituzte, Atarrabian (Nafarroa) eta Oiarzunen (Gipuzkoa), eta etzi beste biak, Bera (Nafarroa) eta Gasteizen.

Artola kadete mailako finalerako sailkatu da

ERREDAKZIOA

Intxurre pilota eskolakoak hainbat txapelketetan murgilduta daude. Adibidez, Iñaki Artola alegiarra Euskal Herriko Ligaren finalerako sailkatu da kadete mailan banaka. Gure Pilota elkarteko Lasari zion eta aurretik 18-13 galdu zuenez, bi partiden batura eginez alegiarrak lortu du finalerako txartela. Martxoaren 7an jokatu du Apeztegiaren aurka Zumarragan.

Bestalde, aurreko asteburuan beste partida batzuk ere jokatu zituzten Intxurreko pilotariak. Kadeteetan binaka, Euskal Herriko Ligan, Nazabal eta Muruak 8-22 galdu zuten Leitzako Aurrera el-

karteko Jaunarena eta Hermandorenaren aurka. Udaberri Txapelketan, nagusien hirugarren mailan, Intxurre 1 taldeko Alonso-Olanok 22-14 irabazi zioten Tartaloetxe elkartekoei eta Intxurre 2 taldeko Ibarguren-Erauskinek 22-10 irabazi zioten Gaztelekoei. Errendimendu Txapelketan, alebin mailan, Intxurre 1 taldeko Altuna-Irazustabarrenak 16-12 irabazi zioten Arrasatekoei.

Asteburuan partida hauek dituzte Intxurrekoek: Errendimenduko Txapelketan, Intxurre 1-Añorga bihar, Alegian, 16:00etan; Udaberri Txapelketan, Intxurre 2k atsedena du eta Intxurre 1ek Lazkaokoen aurka du partida.

K Kirol jarduera

Gaur, ostirala

Areto futbola

■ Usabalgo goiko kantxan, neskak, 20:45ean: Laskorain-Orixe.

Eskubaloia

■ Usabalgo beheko kantxan, infantilak, 18:00etan: Tolosa-Legazpi.

Bihar, larunbata

Saskibaloia

■ Usabalgo goiko kantxan, infantil neskek, 09:00etan: Mende TAKE - Easo.

■ Usabalgo goiko kantxan, 10:30etik aurrera hiru partida. Infantil mutiletan, TAKE Orixa - Antigua Luberr; Ego TAKE eta Astigarraga. Azkenik, infantil neskek: Ekhi TAKE - Bera Bera Manteo.

■ Usabalgo goiko kantxan, 12:00etan, kadete mutilak: Bide Bide - Aloña Mendi.

■ Usabalgo goiko kantxan, junior neskek eta mutilak, 16:00etan: TAKE Orbela-Easo; Aralar TAKE-Cafes Aitona.

■ Usabalgo goiko kantxan, seniorrak, 18:00etan: TAKE Orbela - Jalai.

Areto Futbola

■ Usabalgo beheko kantxan, 16:00etan, probintzial A mailakoen partida: Tolargi - Denak taberna.

■ Usabalgo goiko kantxan, seniorrak, 12:00etan: Tolosa - Arrasate.

■ Usabalgo beheko kantxan, infantilak, 12:00etan: Tolosa B - Aménabar C.

■ Usabalgo goiko kantxan, jubeniak, 16:00etan: Tolosa - Elgoibar.

Futbola

■ Usabalgo futbol zelaian, futbol 8koan, 09:30ean. Emakume kadeteak: Tolosa CF - Mariño. Infantil mutilak: Anoeta - Amara Berri.

■ Usabalgo futbol zelaian, 1. mailako kadeteak, 11:00etan: Tolosa CF - Oiartzun.

■ Usabalgo futbol zelaian, infantilak, 12:30ean: Tolosa CF - Sance.

■ Usabalgo futbol zelaian, Lurraldeko 1. mailako partida, 15:30ean: Amarotz - Mariño.

■ Berazubín, jubeni nazional, 16:30ean: Tolosa CF - Ariznabarra.

■ Usabalgo futbol zelaian, senior mailako emakumeen futbol 11, 17:30ean: Tolosa CF - Mutriku.

Etzi, igandea

Eskubaloia

■ Usabalgo goiko kantxan, 12:00etan seniorrak: Tolosa - OET.

■ Usabalgo beheko kantxan, 11:00etatik 13:00etara, Gipuzkoako selekzioa.

Areto futbola

■ Usabalgo beheko kantxan, 12:00etan juniorrak: Laskorain - San Patricio.

Futbola

■ Usabalgo zelaian, 10:00etan, infantil txikiak: Tolosa CF - Sance.

■ Berazubín, 16:30ean, Lurraldeko Ohorezko Maila: Tolosa CF - UPV Vasconia.

E Elkarrizketa

Zizurkil » Igandean Azpeitiko zezen-plazan Alex Txikonen aurkako apustua du; 100 kiloko harria 25 aldiz, aizkora 14 kana-erdiko eta 7 kilometro korrika egingo dituzte.

ENERITZ MAIZ

Pasa den urteko azaro amaieran adostu zuten apustua. Joseba Otaegi (Zizurkil, 1983) aizkolaria, Alex Txikon mendigoizale eta aizkolaria botatako erronka onartu zuen. Igandean, hilak 28, Azpeitiko zezen-plazan 12:00etan hasiko dira nor baino nor, harriarekin, aizkora eta korrika. Alde bakoitzak, 7.000 euro jarri ditu horretarako. 25 urte pasa dira honelako apustu bat egin zenetik.

Gogoratzeko, nondik nora ateratzen apustu hau?

Orain dela hiru hilabete bota zuen erronka Txikonek Euskadi Irratian Athletic futbol taldearen partida bat ematen ari zirela. Korrika ongi moldatzen da eta lehengo urtean ere beste apustu bat egin zuen Zubizarretaren aurka. Aspaldian ez da horrelako apusturik egin eta hiru lanetarako gogoa izango zuen.

Berak bota, eta zuk onartu.

Bai. Berak korrika 8 kilometro egin nahi zituen eta 16 kana-erdiko ebaki. Nik 6 kilometrora jaitea nahi nuen eta berak gutxienez 7 kilometro nahi zituen. Eta korrikakoa 7 kilometrotara jaistearekin egurrak ere jaitsi egin genituen 14 kana-erdietara. Harria berriz, zegoen bezala mantendu zen. Ez dut uste biotako inori komeni zitzaizgunik hortik gorajoa teate.

Zein prestaketa mota egin duzu?

Hiru hilabete izan ditugu baina tartean aizkorako Lehen Mailako Txapelketa izan da eta apustua prestatzeko bi hilabete izan dira, urte hasieratik hona. Aizkora ez naiz gehiegi aritu eta denetik pixka bat egin dut. Azken hilabetea hirurak batera entrenatuz aritu naiz.

Zer moduz ikusten duzu zure burua?

Harriarekin nahiko ongi ikusten naiz baina presaka hasiz gero ordaindu egiten da eta proba guztirako eragiten du. Korrikara jada lan asko eginda iristen zara eta 70 buelta eman behar zaizkio zezen

«Harria eta aizkora lan asko eginda iristen zara eta 70 buelta eman behar zaizkio korrika plazari»

plazari. Tolosan eta Azpeitian proba egin dut.

Zerk ematen dizu beldur gehien?

Korrika hutsean eginda ondo, baina aurretik egin behar duzun lana eta gero, batez ere hankak neka-



E. MAIZ

«Kilometro bakoitzeko minutu inguru kendu beharko diot aizkora»

tzen dira eta bikiak igotzen hasten dira, eta horrek ematen dit beldurrik gehien. Hanketatik ongi mantentzea izango da kontua, korrika poliki-poliki hasi, hankak askatu eta buelta ematea.

Nola ikusten duzu aurkaria?

Aurkaria ondo. Ez dut aspaldian ikusi baina izugarriko gorpuztzeresistentzia dauka eta zortzimitakoetan ibilita normala da. Aizko-

«Erresistentzia handia dauka eta korrika buelta eman eta lan ona egingo duela pentsatzen dut»

ran ere Txapelketetan ibiltzen da eta apustuak ere egin ditu. Korrikakoan errekupeatu egingo duela daukat beldurra; lan ona egingo duela uste dut. Nik ongi ibiltzeko, aizkora, kilometroko minutu inguru kendu beharko diot.

Zenbat denbora beharko duzue lan guztia bukatzeko?

Pentsatzen dut ordu eta erdi inguruan ibiliko garela. Ordu eta erdi baino gutxiago, baina ordu eta laurden baino gehiago beharko ditugu.

Zer esaten dizu jendeak?

Dena galderak izan dira. Zenbat kenduko diok? Zenbat denboran egingo duk kilometroa?... Aizkora hutsean izaten denean baino pisutsuagoa izan da alde horretatik.


Dirua zure alde omen dago. Honek badu eraginik zuregan?

Ez, nik horri ez diot asko begiratzen. Normala iruditzen zait, nahiz eta korrika bera oso ongi ibili bukerako lana da. Aizkora bera 3. Mailakoa da eta ni Lehen Mailakoa izanda, jendeak horri begiratzen dio. Baina diruarena ez da beti

errealia izaten eta niretzat, aizkora dagoen diferentziagatik da. **Apustu mundua gustuko duzu?** Txapelketa urtean behin izaten da eta urte guztia libre geratzen zaizu

«Diruarena ez da beti errealia izaten eta aizkora dagoen aldeagatik dela uste dut»

eta gastu pila dituzu. Honela, aktibo mantentzen zara eta diru bat ateratzeko aukera duzu.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Hasi da goma gaineko munduko txapelketa

Ibarra» Lander eta Imanol Otermin ari dira Abadiño taldearekin tiraka; Cesenatico herrian (Italian) daude.

ERREDAKZIOA

Atzo hasi zen bi urtez behin jokatzen den TWIFen goma gaineko Munduko Sokatira Txapelketa Italiako Cesenatico herrian.

Euskal Herriatik talde ugari joan dira: Abadiño A eta B (Abadiño, Bizkaia), Badaiotz (Gasteiz, Araba), Berriozar (Berriozar, Nafarroa) eta Napurrak (Ezpeleta, Lapurdi) gizonen sailean, eta emakumezkoetan berriz, Badiotz (Gasteiz, Araba), Sakana (Arbizu, Nafarroa Garaia) eta Beti Gazte (Lesaka, Nafarroa Garaia).

Horien artean, gainera, bi ibartar daude, izan ere Lander eta Imanol Otermin Abadiño taldearekin ariko dira tiraka. Lander Otermin Abadiño A-n eta Imanol Otermin Abadiño B-n. Ez da Landerren le-



Lander eta Imanol Otermin jokatzen berri den Euskal Herriko Txapelketan egon dira Abadiño taldearekin. HITZA

» TXAPELKETAREN EGITARAUA

■ **Atzo.** Klubeka: 560 kiloko gizonen txapelketa; 540 kiloko emakumezkoen txapelketa; 640 kiloko gizonen txapelketa; eta 23 urte azpikoek 600 kiloko gizonen txapelketa.

■ **Gaur.** Klubeka: 600 kiloko gizonen txapelketa; 500 kiloko emakumezkoen txapelketa; eta 680 kiloko gizonen txapelketa.

■ **Bihar.** Nazioka: 560 kiloko gizonen txapelketa; 540 kiloko emakumezkoen txapelketa; 640 kiloko gizonen txapelketa; eta 23 urte azpikoek 600 kiloko gizonen txapelketa.

■ **Etzi.** Nazioka: 600 kiloko gizonen txapelketa; 500 kiloko emakumezkoen txapelketa; eta 680 kiloko gizonen txapelketa.

hen aldia, izan ere orain bi urte ere Italian, baina Faenza herrian, izan zen goma gaineko txapelketan parte hartzen eta 2008an Suediako Stenungsund udalerrian izandako Lur Gaineko Munduko Sokatira Txapelketan ere aritu zen.

Atzo eta gaur klubaren arteko txapelketak

Aipatu moduan, atzo hasi zen txapelketa eta atzo eta gaur klubaren arteko txapelketak ari dira jokatzen, eta horietan ariko dira, hain justu ere, euskal klubak.

Gauzak horrela, gizonen txapelketa 560 kilo eta emakumezkoen 540 kiloko lehiek emango zioten atzokoan hasiera txapelketari. Pisu horretan, Abadiño A eta B (Abadiño, Bizkaia), Amaiur (Amaiur, Nafarroa), Napurrak (Ezpeleta, Lapurdi) eta Sokarri (Arrigorriaga, Bizkaia) aritu ziren, nazioarteko klubekin batera: Yongning eta GuangDong (Txina), Kyoto Lobster (Japonia), Bremore, CARN-DONAGH eta CLONMANY (Irlanda), TTV Lagerweij (Herbe-

reak/Holanda), Txina Taipei (Txina Taipei), eta Country Club eta Richhill (Ipar Irlanda). Bi multzotan jokatuko dute sailkapen ligaxka.

Orain dela bi urteko txapelketan, Abadiño B hirugarren sailkatu zen. Bizkaitarrez gain, Berriozarrek (Nafarroa) ere esku hartu zuen, baina ez zen finalerdietarako sailkatu.

Emakumezkoen 540 kiloko aritu zen lehian, Badaiotz (Gasteiz, Araba), Beti Gazte (Lesaka, Nafarroa Garaia) eta Sakana (Arbizu, Nafarroa Garaia) dira Italian dauden taldeak. Orain dela bi urte 520 kilotan aritu ziren.

Horretan, Gasteizko Badaiotz aritu zen lehian, eta ez zen sailkatu finalerdietarako. Txinako Lai Grang taldeak irabazi zuen, hain zuzen, tiraketa ikusgarriak eginda; ikusgarriak, tiratzeko eragatik batez ere.

Behin bi txapelketa hauek bukatuta gizonen txapelketa 640 kiloko txanda izan zen atzo. Pisu horretan ez zen euskal talderik aritu.

Lander Otermin munduko txapeladun

Munduko Txapelketaren baitan 560 kiloko lehia jokatzen atzokoan, besteak beste, Imanol Otermin Abadiño Brekin hartu zuen parte eta bere anai gazteak, Lander Oterminekin, Abadiño Arekin.

Pisu honetan hamabost talde aritu ziren sokan sailkapen ligaxkan, bi multzotan banatuta. Horietatik bost, Euskal Herriko taldeak ziren.

Lehen multzoan Sokarri eta Abadiño B aritu ziren. Sokarri laugarren sailkatu zen eta Abadiño B zazpigarren; biak ala biak finalerdietatik kanpo geratu ziren.

Bigarren multzoan, berriz, zaz-

pi talde lehiatu ziren, eta tartean, Abadiño A, Amaiur eta Napurrak euskal taldeak. Hain zuzen ere, aurreneko bi postuetan sailkatu ziren Abadiño A eta Amaiur, finalerdietarako sailkatuz.

Finalerdietan, Abadiño A-k Cockhill talde irlandarra kanporatu zuen eta Amaiurrek Richhill, irlandarrak hauek ere. Ondorioz, finala Abadiño A-k eta Amaiurrek jokatuz.

Bi tiraldiak gogorrrak suertatu ziren. Hala eta guztiz ere, bietan talde bizkaitarra gailendu zen hiru minutu pasatxoan, Lander Otermin tartean zela.

Elkarretaratzea egingo dute bihar Tolosako epaitegi aurrean 12:00etan

ERREDAKZIOA

Etarteratek deituta elkarretaratzea egingo dute bihar, larunbata, Tolosako epaitegiaren aurrean 12:00etan. Amnistiaren Aldeko Mugimenduak esandakoaren arabera, mobilizazioekin «zen aldarririk nahi dugu presoek eta senideek bisitak duintasunez egiteko duten eskubidea». Era berean, azken asteetako miaketak eta tortura kasuak salatuko nahi dituzte.

Irteera martxoaren 8ko ospakizuna dela eta

Tolosa» Emakumearen Nazioarteko Eguna dela eta irteera egingo dute Landa Eremuko Emakumeek.

ERREDAKZIOA

Azkeneko urteetako ohiturari jarraituz, martxoaren 8ko Emakumearen Nazioarteko Eguna dela eta egun pasa antolatuko dute Tolosako landa eremuko emakumeek. Irteera eguna bera baino lehen

egingo dute, hala ere, larunbatean, martxoak 6.

Erle museora lehenik eta bazkaltzera ondoren

Antolatzaileek argitutakoaren arabera, hauxe izango da egitaraua: Urretxuko Aikur erle museora joango dira lehenik eta ondoren, Urretxuko jatetxe batean bazkalduko dute.

Parte hartu nahi dutenek astelehena, martxoak 1, baino lehen eman behar dute izena 652-70 96 80 telefono zenbakian.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko HITZA.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK
SPUTNIK DORREEN ONDOAN
ZURE BETIKO EHORZTETXEA
www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40
ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900

Landa Goikoko 32 etxebizitzetan izena emateko aukera zabalik aurkitzen da

Leitza» Martxoaren 15ean itxiko dituzte zerrendak. Bertan egon nahi duenak udaletxeko bulegoetara joan beharko du.

ASIERIMAZ

Landa Goikoan egingo dituzten 32 etxebizitza babestuetan izena emateko aukera zabalik dago, eta horrela egongo da martxoaren 15a bitarte.

Eremu horretan guztira 40 etxebizitza egingo dituztenez, ondoren beste 8 etxebizitzetan izena emateko aukera zabalduko dute.

Martxoaren 15ean amaituko den lehen deialdi hau nafar guztientzako da.

Udal bulegoetan

Lehen 32 hauek 16 babes ofizialeko etxebizitzak izango dira, beste 16ak berriz tasatuak. Izena emateko NANren fotokopia, 2007-08ko errenta aitortpena eta errolda agiria eraman beharko dira Leitza-ko udaletxera. Ondoren, bertan lortzen den esku orria bete beharko da.

Xabier Zabalo Leitza-ko alkatearen esanetan, orain arteko jendearen erantzuna «nahiko positiboa» izan da: «Garaiak ere ez dira egoikiak, baina eskaerak eskaintzak baino gehiago daude gaur egun. Jendeari, ahal duen guztiari, udaletxera etortzeko eskatuko niok. Horrela, Udalak etxebizitzaren behararen inguruan datu zeha-



Landa Goikoan hirigintza lanak aurrera doaz. A. IMAZ

tzagoa edukiko luke. Orain arte galdeketak eta inkestak egin ditugu, baina hau erreala izango litzateke, baina ez erabatekoa. Izena emateko diru sarrerak eduki behar dira eta multzo horretan denak ez dira sartzen».

Martxoaren 15a iristen denean, ez da zozketarik egingo Gipuzkoan bezala adibidez, Nafarroan puntuak hartzen baitira kontutan. Zabalok berak ongi azaldu du bareremo hauen funtzionamendua: «Eskatzaileen arabera, soldataren arabera, alokairuan bizi baldin bazara, Etxebizitza Kontua baldin baduzu, bananduta baldin bazaudede, haurrak baldin badituzu... pun-

tu batzuku dituzu». Izena emateko epea amaitzen denean beraz, puntuak batuko dituzte eta hortik 32ko zerrenda bat kaleratuko dute: «Lan hau egiteko hilabete bat gehiago beharko dugu, beraz, apirilaren amaieran jakingo dira emaitzak». Hori bai, azken 30 urteetan babesturiko etxebizitza bakar bat ere ez da egin Leitza eta «pazientzia» eskatu du alkateak, eurentzat dena berria izaki «non oinarritu ere» kostatzen ari baitzaie.

Puntuakoko sistema honekin gazteek aukerarik izango ote duten galdetuta, Xabier Zabalo alkateak argi dauka: «Lanketa guzti

hau gazteentzat bideraturik egin dugu. Gazteazateagatik ere puntu gehiago dituzula ez da ahaztu behar».

Landa Goikoan hirigintza edo egokitze lanak abian dira. Ondoren, eraikuntzak etorriko dira eta 2012. urtearen baitan, jabeek giltzak ematen hasiko zaizkie, «nahiz eta data zehatzekin beti arriskua egoten den».

Ondoren, babes ofizialeko zortzi etxebizitza gehiago

32 babestutako etxebizitza hauek nafar guztientzat zabalik baldin badaude, ondoren egingo dituzten beste 8ak, babes ofizialekoak, leitzarrentzat bideratuko ditu Udalak, kasu honetan, udaletxearen lurretan eraikiko baitira.

Zabaloren esanetan Nafarroako Gobernuak eman behar duen baimenaren zain aurkitzen dira zerrendak zabalteko: «Izena emateko aukera hilabete baten bueltan zabalteko espero dugu. Kasu honetan Leitza errodadura daude-ntzat zuzenduriko deialdia izanen da».

Asteburuan bost erronka edukiko dituzte Aurrerako pilotariak

Leitza» Amazabal pilotalekuan Nafar Jokoez gain, Noticias de Gipuzkoa Txapelketa jokatu da bihar goizean.

ERREDAKZIOA

Leitza-ko Aurrera Pilota Eskolakoek erronka berriak edukiko dituzte asteburu honetan: guztira bost txapelketetan jokatuko dituzte partidak.

Amazabal pilotalekuari dagokionez, bi lehia jokatu dira bihar. Bata 11:30ean hasiko da, Nafar Jokoen baitakoa, eta bestea 12:00etan, Euskal Herriko Ligari dagokion partida. Azken honetan Jon Jaunarena irten goa da kantzara, 22 urtez azpikoen mailan. Aurrerari bezala Aguraingo pilotari bat edukiko du leitzarrik.

Beste Txapelketak

Noticias de Gipuzkoa Txapelketa-kopartida jokatuko dugaur Xabier Jaunarenak Antiguon, 19:00etan.

Zizurko Txapelketa Lenitz Galartza izango da leitzarren ordezkaria. Partida igandean izango

da 08:45ean, Zizurren bertan. Azkenik, Herrerako Txapelketa, Aurrerako bikoteak, Anartz Olanok eta Tolosak, Kadete Mailako partida jokatu dute igandean, 10:00etan hasiko den jaialdiaren baitan.

A Aurrerako partidak

PILOTA
Noticias de Gipuzkoa
Txapelketa

KADETEAK
Xabier Jaunarena
Giokolea

Nafar Jokoa, Amazabal pilotalekuan

BENJAMINAK
Goikoetxea-Claudio
Ardoi A

Euskalerriko Liga
22URTEZ AZPIKOAK
Jon Jaunarena-Agurain

Zizurko Txapelketa
INFANTILAK
Lenitz Galartza

Herrerako Txapelketa
KADETEAK
Anartz Olano-Tolosak
Alberdi-Cristobal

TXOTX

Rezola Tel.: 943 556 637 Astigarraga
Ipintza baserria - Savito Zaharra www.rezolasagardotegia.com

Oialume Zar Tel.: 943 552 938 Astigarraga
Mikel Arozamena bidea, 16 (autobus geltokik gertu)

Akelenea Tel.: 943 333 333 Astigarraga
Oialume bidea 57 www.akelenea.com

Gurutzeta Tel.: 943 552 242 Astigarraga
Oialume bidea 63 (sarrera Ergoblatik) www.gurutzeta.com

Lizeaga Tel.: 943 468 290 Astigarraga
Gartziategi baserria, Martxene postakaldea, 139

Mina Tel.: 943 555 220 Astigarraga
Txerrikieta postakaldea

Gartziategi Tel.: 943 469 674 Astigarraga
Donostia Astigarraga bidea, 5.km. www.gartziategi.com

Elutxeta Tel.: 943 556 981 Urnieta
Oztaran auzoa, 34 - Elutxeta baserria

Larre Gain Tel.: 943 555 846 - 616 287 867 Hernani
Larre-Gain baserria, Erelozu auzoa

Otsua-enea Tel.: 943 556 894 Hernani
Oslaga auzoa

Iparragirre Tel.: 943 550 328 Hernani
Oslaga auzoa, 10 www.iparragirre.com

Urdaira Tel.: 943 372 691 Agnaga-Urtebil
Urdaira baserria

Arratzain Tel.: 943 366 663 Arratzain zahar baserria Urdabil
www.agroturismoarratzain.com / info@agroturismoarratzain.com

Urbitearte Tel.: 943 580 119 Ataun
Ergoiena auzoa

Ohiarte Tel.: 943 501 013 Zeran
Ohiarte baserria

Isastegi Tel.: 943 652 964 Tolosa
Aldaba Txiki auzoa www.isastegi.com isastegi@isastegi.com

Begiristain Tel.: 943 652 837 Ibarategieta
Ibarretx baserria

Zabala Tel.: 943 690 774 Aduna
Garagarza baserria (Goberu auzoa) www.zabalabizka.com info@zabala.com

Sarasola Tel.: 943 690 283 Asteasu
Bebalera auzoa

Ola Tel.: 943 623 130 Iruin
Mezka auzoa, 102

Lindurrenborda Tel.: 948 637 212 Lesaka
Nabaz auzoa, 8

DIEZ Autobusak

Autobusak eta ibilgailuak zerbitzu berria
Mota eta zerbitzuak zabalduak
Guztizkoak, txandak, lasterkiak, errepideak...

Munduko helburua, 24 | Tel.: 943 28 84 16 | Fax: 943 27 11 37 / 2012 DONOSTIA
Posta elektronikoa: malala@autocaresdiez.net



13°
7°

GOIZA	EURIA
ARRATS.	EURIA
BEROENA	17°
HOTZENA	9°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendari: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetaledea: 687 410 022. anoetaledea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarraledea: 687 410 032. ibarraledea@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Musika

■ **Tolosa.** Yolanda Arrietaren *Off-On* puzzle narratiboaren aurkezpen musikatu gaur Topic-en 20:30ean, Juantxo Zeberio pianistarekin.

■ **Leitza.** Des-kontrol eta Last Rebels musika taldeen kontzertua gaur 23:00etatik aurrera, Ateka-beltz gaztetxean.

■ **Tolosa.** Tolosa kantari euskal kantu jirra Alde Zaharreko kaleetan, Tontokaletik abiatuta bihar 12:00etan.

Erakusketa

■ **Tolosa.** Emakumeak protagonista dituen *Aurrez aurre* izeneko erakusketa interaktiboa gaurtik apirilaren 10 bitarte Aranburu Jauregian.

Deialdia

■ **Ibarra.** Udalaren ez ohiko bilkura udaletxeko pleno aretoan gaur 13:00etan. 2010eko aurrekontu orokorrak eztabaidatuko dituzte, aurrekontua egikartzeko Udala araudia landuko dute eta 2010eko Udala langileen zerranda organiko osatuko dute, besteak beste.

■ **Villabona.** Herriarrek beste behin odola emateko aukera izango dute gaur. Anbulatoriora gerturatu beharko dute 18:30etik 20:30era.

Zinema

■ **Tolosa.** *Igelak* eta *Zapoa* haur-errentzako filma etzi, hilak 28, Leidor aretoan 17:00etan.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Etxebeste, J. M. Gernika-ko arbola, 3. 943 65 10 45.

■ **Leitza.** Plaza, M. T. Elbarren, 36. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Florencio Perez Perez tuba-jotzailea omendu zuen Alcoyano txarangak pasa berri diren Inauterietan. Zaldunitan izan zen, hain justu. Perez Leongoa bada ere, urte asko daramatza Tolosan.

82 urteko txarangeroa

ERREDAKZIOA

Gogorra da pasa diren Inauterietan txarangekin jotzen ibiltzea egun osoan zehar.

Gogorrango hiru egunetan horrela aritzea. Are gehiago tuba jotz gero. Eta 82 urterekin? Hori bai meritua. Hala iruditua zaio Alcoyano txarangari. Horregatik baldintza horiek betetzen dituen talde bati omendu zuen Zaldunitan: Florencio Perez Perez.

Valencia de Don Juan (Leon) herrian jaio zen Florencio Perez duela 82 urte, eta han ikasi zuen musika eta tuba jotzen, baina bizitza erdia baino gehiago Tolosan darama, 1955ean etorri baitzen hona bizitzera.

1961ean sartu zen Tolosako Musika Bandan -argazkian berarekin agertzen den Jose Mari Mendibilekin batera- eta 1963an Alcoyano



Florencio Perez Perez eta Jose Mari Mendibil. HITZA

txarangari. Urte luze hauetan makina bat aldiz atera da kalera dozena bat kilo baino gehiago pisatzen duen soinu tresnarekin giroa jar-

tzera. Ez bakarrik Tolosan. Alcoyano txarangarekin Euskal Herri osoan, Kantabrian, Asturiasen, Galizan, Leonen... ere ibili zen.

Gaur egun Musika Banda utzita dauka, baina txarangekin jarraitzen du.

Aurtengo Inauterietan hiru txarangetan atera da: Zaldunitan Alcoyanon, Astelenitan Tolosan eta Asteartitan San Estebanen. «Gogorrera zezenen irteerako kalejira izaten da. Baina txarangarekin ateratzen jarraitzeko asmoa daukat», adierazi du Florencio Perezek. Inauterietako «pieza guztia» ditu gustuko, denak «politak direlako». Eta festa hauetatik «kalera ateratzen den guztia» gustatzen zaio: karrozak, konpartsak, txarangak...

Merezitako omenaldia jaso zuen Alcoyano txarangakideen eskutik. Jose Mari Mendibilek eman zion oparia, hain justu.

Bere umoreak eta animoak hori eta gehiago merezi dutelako. Aupa Florencio!

A Agurrak

agurrak

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldeko-hitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:

Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31180 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:

• N A :

• Lanbidea:

• Jaioteguna:

• Helbidea:

• Herria:

• P.K.:

• Tel.:

• Posta elektronikoa:

• Kontu zenbakia:
